

2



2

3

Ekoizpena



Basque Luxury

# Ekoizpena

2023. urtean, Donostia Kulturako Ekoizpen Unitateak **781 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoa, Kursaal Elkargunean eta beste espazio batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpen horien artean daude Donostia Kulturaren jaialdiak, hala nola **Antzerki Azoka, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea**.

Donostia Kulturaren aipatutako ekoizpen horiez gain, beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini zitzaizkien ekoizpen-zerbitzuak 2023an.

- **Kursaal Eszena** programazioaren barruko kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).
- 2023ko **Urrezko Danborra** eta **Hiritar Merezimenduaren Dominak** emateko ekitaldiak, Donostiako udaletxean.
- **Musika Hamabostaldia / Quincena Musical** Kursaal Elkargunean, San Telmo Museoa eta Tabakaleran. 2023an, opera nabarmendu zen, jaialdi beraren ekoizpenen artean.
- **El Diario Vascoren** Eguberrietako kontzertua, Kursaal Auditorioan.
- **Saharari Kantari** kontzertua, Kursaal Auditorioan.

Aurten, Victoria Eugenia Antzokiaren eraikinaren argazkiak digitalizatzeko lan bat egin da, lau multzotan; sarrerak edo tiketak, eszenatokiari eta arlo teknikoari dagozkion instalazioak, arlo komertziala eta apaingarriak. Irudi horiek antzokia eta haren zerbitzuak hobeto ulertzen laguntzen dute, gaur egungo euskarri tradizionalak osatuz.

Prebentzioaren eta Hobekuntzen arloan, antzokietako goiko tramoiarekin lotutako jarduteko moduei dagokienez, rigging ikastaro bat egin zen **Pablo Morenoren** eskutik; Espainian ikuskizunen industriako segurtasun eta rigging kontuetan erreferente nagusietako bat da Moreno.

Halaber, LT Argiztapeneko kotsola erabiltzen ikasteko ikastaroa egin zen; fabrikatzaileak berak eman zuen.

Azkenik, motorizatzeko eta maskor akustikoari konponbidea aurkitzeko azterketa abiatu da, berriki esleitu dena.



Basque Luxury



Basque Luxury



Pintxo Gala



Pintxo Gala